

Foru Aldundiak zerga premiazko araugintzako dekretu bat onetsi du, inflazioaren efektuari aurre egiteko neurri berriekin

Neurriak lurraldeko zergadun guztiengana iritsiko dira, eta intentsitate handiagoarekin pertsona kalteberen kasuan

Gasteiz, 2022ko abuztuaren 2a. Gobernu Kontseiluak zerga premiazko araugintzako dekretu bat onetsi du, inflazioaren efektuari aurre egiteko neurriekin. Hartutako neurriek Aldundiarentzat dirubilketa txikiagoa ekarriko dute eta lurraldeko zergadun guztiengan inflazioaren ondorioak arintzen laguntzeko izango dira, pertsona kalteberenen kasuan intentsitate handiagoarekin.

Lehenengoak ekarriko du pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan (PFEZ) aplikatu beharreko tarifa % 4 deflatatzea. Horrela, zerga horren ordainketa egungo egoera ekonomikoari egokitu nahi zaio, inflazioaren ondoriozko soldata igoerek faktura fiskala handitzea ekar ez dezaten. Kontuan izan behar da deflaktazio hori gehitu egiten zaiola 2022rako neurri fiskalak hartzeagatik tarifari, % 1,5koa baitzen.

Era berean, eta neurri hori aurten islatu ahal izateko, lan atxikipenen taula aldatu da. Neurri hori irailaren 1ean jarriko da indarrean, eta, beraz, berehalako eragina izango du irailaren eta urte amaieraren artean ordaintzen diren soldatetan. Bestalde, aurretik ordaindutako nominen kasuan, atxikitako gehiegizko kopuruak egokitu egingo dira errentaren hurrengo kanpainan.

Halaber, inflazioaren aurkako 200 euroko kenkaria onetsi dute, eta PFEZen 30.000 eurora arteko zerga oinarri orokorra duten zergadunek aplikatu ahal izango dute. 30.000 eurotik 35.000 eurora bitartean, 200 euroko kenkaria pixkanaka murrizten joango da aitortpenaren oinarria handitu ahala. Neurri horrek zergadun ahulenetan jartzen du arreta.

Era berean, beste finantza neurri batzuk hartu dira autonomoen eta enpresen egoera arintzeko eta, horrela, likidezia handiagoa emateko. Autonomoen kasuan, ekitaldi honetako hirugarren eta laugarren hiru hilekoetako ordainketa zatikatuak egiteko betebeharetik salbuetsita geratzen dira.

50 milioi eurotik beherako eragiketa bolumena duten eta enpresa taldeetan sartuta ez dauden enpresei dagokienez, horiek ere ez dute sozietateen gaineko zergaren ordainketa zatikatua egin beharko.

Azkenik, onetsi da 11/2022 Errege Lege Dekretuaren ondorioz jasotzen diren 200 euroko laguntza publikoak salbuetsita uztea.

Foru Aldundiak Garabideren laguntzak emateari amaiera emango dio, hirugarren ebazpen baten bidez. Ebazpen horrek 56 proiektu finantzatzeko ditu 5.000 biztanletik beherako 21 udalerritan

Hirugarren ebazpen horretan, 1.357.793 euroko dirulaguntza emango da udal planetarako, 3,3 milioi euroko guztizko zuzkiduratik

Foru programa berri honekin 112 proiekturi emango zaizkie laguntzak biztanle gutxiko 47 toki entitateetan

Gobernu Kontseiluak gaur goizean onetsi du Garabide dirulaguntzen programaren hirugarren eta azken ebazpena, 5.000 biztanletik beherako udalerrien proiektuak eta ekimenak finantzatzeko ezohiko laguntzen programa berriarenak. Oraingoan 56 proiektu finantzatzeko dira, guztira, Arabako 21 udalerritan, 1.357.793 euroan. Zenbateko horrekin, Garabide programaren zuzkidura osoa osatu da, 3.360.000 eurokoa zena 2022rako eta 2023rako, eta horrekin bultzada handia eman zaio guztira 112 inbertsiori Araban 5.000 biztanletik behera dituzten 47 udalerrietan, hau da, dirulaguntza mota hori eskuratzeko eskubidea duten guztietan.

Programa horrek Foru Aldundiaren Oreka programak indartzen ditu, hala nola Obra eta Zerbitzuen Foru Plana, Obra Txikiak eta Auzo Harremanak, baita larrialdien eta ezustekoen deialdia eta programa berrien deialdia ere, esaterako landa eremuan etxebizitzak birgaitzeko laguntzak ematen dituen edo udalerrri barruko garraiorako laguntzak.

Garabide programaren bidez finantzatzeko proiektu gehienak dira biztanle gutxiko toki erakundeetako oinarrizko azpiegitura obrak, landa bideen erreformak eta hornidura eta ekipamendua hobetzea, gizarte-, kultura- eta kirol-zerbitzuei eusten laguntzen baitute, eta azken batean, lurralde orekari eusten eta biztanleria kopurua finkatzen. Hala, azken ebazpen horretan diruz lagundutako proiektuen artean, honako hauek daude: udal kanpoko argiteriaren instalazioa berritzea Lapuebla de Labarcán, haurrentzako aisialdi parke bat eraikitzea Arespalditzan, futbol zelaiko aldageletan berogailua jartzea eta gizarte zentroko galdara gela berritzea Iruña Okan, Garlanerako sarbidean A-3228 errepidearen lotunean Kripanen, Guardiako igerilekuetan ur jolaserako gunek egokitzea, gazte zentro gisa eraikina eraberritzea Gaubean eta Iekorako, Biurcoko (Guardia), Gazeoko (Iruñaz-Gauna), Arragako (Aramaio), Eskuernagako eta Añanako bide konponketak egitea, besteak beste.

Inbertsio plan berezia da lurralde historikoko udalerrri txikiarentzat; hain zuzen ere, Foru Aldundiak laguntza ekonomikoa emateko betebeharrak handiagoa duen udalerrientzat, haien finantza nahikotasuna bermatzeko. Foru erakundea, landa eremuko udalerrri txikien errealitateaz jabetuta, lurralde kudeaketa bat garatzen ari da, sendotzean, indarrean dauden programak hobetzean eta laguntza programa berrietan oinarrituta, lurralde oreka eta kohesioa bultzatzeko.

Foru Aldundiak 774.711 euro bideratuko ditu bigarren mailako errepideen zorua hobetzeko

Foru Gobernu Kontseiluak erabaki du gaur Nuño y Pescador SAri esleitzea Arabako zenbait errepidetak zorua hobetzeko lanak, hartxintzarrez ureztatzeko tratamenduaren bidez, 774.711 euroan eta hiru hilabeteko gauzatze epean.

Lan horiek Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren 2022ko Bide Zoruen Planaren parte dira. Plan horrek 4 milioi euro inbertituko ditu, guztira, Arabako bideetako zorua konpondu eta berritzeko, bigarren mailako sareari arreta berezia eskainita.

Kontratu horren helburua da konponketak eta tratamenduak egitea hartxintzarrez ureztatuz Tokiko Sarean eta Auzo Sarean sartutako 13 errepidetan. Errepide horiek Arabako hainbat herri komunikatzen dituzte eta, kasu gehienetan, landa gune txikietarako sarbidea ematen dute:

- Toki sarea: A-3022, Etura parean; A-3104, Zekuianotik aurrera; A-3226, A-124 errepidearekiko bidegurutzetik Lasernan Oioneraino; eta A-3320, A-2622 errepidearekiko bidegurutzetik Angostoraino.
- Auzobide sarea: A-4005 Dalloko sarbidea (Arabako Lautada), A-4138 Txintxeruko sarbidea (Arabako Lautada), A-4154 Urturiko sarbidea (Arabako Mendialdea), A-4338 Lalastrako sarbidea eta Valderejoko Parke Naturala (Añana), A-4342 geltokiaren auzoaren eta Manzanos herriaren artean (Añana), A-4604 Lekamañako sarbidea (Aiara), A-4608 Aloriako sarbidea (Aiara), A-4619 Ozeka eta Luxoko sarbidea (Aiara) eta A-4620 Beotegi eta Kexaaren artean (Aiara).

Foru Aldundiak 600.000 euro bideratuko ditu Guardiako ur biltegi berria eraikitzeke obrara

Jarduketa hori 2016-2026 aldirako Arabako Hornidura eta Saneamenduko Plan Zuzentzailean sartuta dago

Egungo biltegia eraitsiko da, 5.000 m³-koa hura ere, bai eta garai batean Guardiako hornidura erregulatzen zuten eta gaur egun zerbitzuz kanpo dauden edateko uraren beste bi ur biltegiak ere

Gobernu Kontseiluak onetsi du laguntza bat ematea Arabako Errioxako Ur Partzuergoari ur biltegi berria eraikitzeke. Laguntza 600.000 eurokoa izango da.

Jarduera hori 2016-2026 aldirako Arabako Hornidura eta Saneamenduko Plan Zuzentzailean sartuta dago, eta lehentasunezko esku hartzea da, 1980ko hamarkadan “Preload” teknologiaren bidez eraikitako egungo biltegiak dakarren arriskua kentzeko. Urteak joan ahala, ikusi da eraikuntza sistema hori erabiliz egitura ahulak egiten direla.

Proiektuan jasotakoaren arabera, hormigoi armatuzko biltegi aurrefabrikatu berri bat eraikiko da, 5.000 m³-ko edukierakoa, oinplano angeluzuzenakoa eta bi konpartimentutan banatua, garbiketa eta mantentze lanak errazteko. Horretarako, gaur egungo biltegia eraitsiko da, 5.000 m³-koa hura ere, bai eta garai batean Guardiako hornidura erregulatzen zuten eta gaur egun zerbitzuz kanpo dauden edateko uraren beste bi ur biltegiak ere. Hain zuzen ere, eremu horretan bertan aurreikusi da egitea berria.

Lanen barruan sartuko da gaur egun dauden andel erregulatzailerako hiru ur sarreren mantentzea, Lezakoarena, Guardiakoarena eta Las Fuentes izenekoarena. Bertatik, dauden hiru irteerei jarraipena ematea aurreikusten da, bi Guardiako eta beste bat Oionerako.

Horrez gain, esku hartzearen barruan sartzen da giltzen eta balbulen etxola berria jartzea, bai eta ur kloroaren balioak egunero erregistratzen dituen klorazio automatiko bat ere. Horri guztiari gehitu behar zaizkio lehendik dagoen andel erregulatzailetik berrira joateko bidea zolatzeko lanak eta ingurumena lehengoratzekoak, inguruan landare lurra zabaldua eta gero haziak hidroereinda.

Orain arte, andel erregulatzailerak duen bolumena nahikoa izan da sortutako edateko uraren eskaria asetzeko, Arabako Errioxako Ur Partzuergoaren beharren arabera.

Aurreko urteetan, Foru Aldundiak, foru erakundearen eta erakunde kudeatzaileen arteko lankidetzaren bidez, “Preload” teknologia horrekin berarekin eraikitako Arabako beste biltegiak ordeztu zituen. Zehazki, Oionen, Agurainen, Dulantzin, Gasteizen eta Artziniegan. Beraz, Araban, Guardiako ur biltegia ordeztuko lanak hastea baino ez da geratzen.

Foru Aldundiak 558.913 euroan esleitu dizkio Yárritu enpresari Iruña Okako suhiltzaile etxea handitzeko obrak

4.000 metro koadro baino gehiagoko azalera horren urbanizazioa gauzatzeko epea sei hilabetekoa da, zuinketa sinatzen denetik hasita

Gasteiz, 2022ko abuztuaren 2a. Gobernu Kontseiluak gaurko bilkuran onetsi du 558.913 euroan esleitzea Yárritu SA enpresari Iruña Okako Arabako suhiltzaile etxe nagusiko lurzatiaren urbanizazioa handitzeko obrak.

Fernando Martínez de Ilarduya parkean kokatuta dagoen lurzatiak, Los Llanos industrialdean, 4.115 metro koadroko azalera du, eta hori da orain urbanizatuko dena, suhiltzaile etxe horretan dauden azpiegiturak hobetzeko, bertan heliazalera bat sortuz, Osakidetzako, Ertzaintzako eta abarretako larrialdi zerbitzuei erantzuteko.

Obrak gauzatzeko epea sei hilabetekoa izango da, zuinketa egiaztatzeako akta izenpetzen denetik aurrera.

Handitzeko obren eraikuntza proiektua aurrekontu proiektuan dago jasota, "Langraiz SISEU hobetzea" epigrafean.

Arabako Foru Aldundia Arabako Foru Suhiltzaileak foru erakunde autonomoaren suteen prebentzio eta itzaltze zerbitzuan egiten ari den hobekuntzen artean, material eta baliabide berrien erosketak nabarmentzen da.

Zehazki, Gobernu Kontseiluak landa autoponpa astun bat esleitzea onetsi du gaur, 381.016 euroan, BEZa barne, Rosenbauer Española SA enpresari. Era berean, Iturri SA enpresari aginte postu aurreratu bat erosteko kontratua esleitu zaio, 133.076 euroan, BEZa barne. Aginte postu horrek aukera emango du ekintzetara joateko eta horiek eta Arabako Suteak Itzaltzeko eta Salbamenduko Eskualdeko Unitateak koordinatzeko.

Duela hilabete, Foru Gobernuak beste baso autoponpa astun bat erostea onetsi zuen, 362.431 euroan, BEZa barne. Ibilgailu horiekin, Arabako Foru Aldundiak ahalik eta bitartekorik onenak izan nahi ditu edozein SISEUtan, baso suteen inguruan sor daitezkeen gorabeherei aurre egiteko.

Arabako Foru Aldundiak 548.000 euro esleituko ditu Amurrio, Asparrena eta Kanpezuko adinekoen etxebizitza komunitarioetarako

Gaur goizean Foru Gobernu Kontseiluak Amurrio, Asparrena eta Kanpezuko udalekin dituen hitzarmenak onetsi ditu. Hain zuzen, udal horiei laguntzen die herri horietako mendekotasun moderatua duten adineko pertsonen hiru etxebizitza komunitarioen kudeaketan eta funtzionamenduan. Arabako Foru aldundiak 548.000 euroekin finantzatuko ditu aurten hitzarmen horiek.

Hiru udalherri horietako etxebizitza komunitarioetan guztira 38 pertsonarentzako lekua dago: 34 egoitza plazak dira, eta gainerako laurak eguneko arretarako plazak.

Etxebizitza komunitarioen titularrak udalak badira ere, Arabako Foru Aldundiak udal horiekin lankidetzan hitzarmenak izenpetuta dauzka, haien bidez etxebizitzaren kudeaketa eta mantentze lan guztiak finantzatzeko. Gaur onetsitako hitzarmenak aplikatuko diren etxebizitza komunitarioez gain, Araban Guardiako eta Gaubeako udalek ere badaukate baliabide mota hori.

Mendekotasun moderatua (1 maila) duten adinekoentzako etxebizitza komunitarioek, baliabide txikiak izan arren, kalitatezko arreta eskaintzen dute Arabako Lurralde Historikoan. Gizarte laguntza eta gainbegiratzea, eta arreta pertsonala eta etxeko laguntza daukate.

Aldundiak Gasteizko Udalarekin batera lizitatuko du elektrizitate kontratua

Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez

Arabako Foru Aldundiak energia elektrikoaren hornikuntza kontratua lizitatuko du Gasteizko Udalarekin eta beste 28 toki erakunderekin batera —kuadrillak, udalak eta administrazio batzarrak—, Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez. Baterako lizitazioak 28 milioi euroko aurrekontua du gutxi gorabehera, eta xede du prezio hobekia lortzea eta, era horretan, baliabide publikoak modu eraginkorrean kudeatzea.

Foru Gobernu Kontseiluak esparru hitzarmen baten deialdia onetsi du gaur, elektrizitate % 100 berdearen —iturri berriztagarrietatik datorrena edo efizientzia handiko kogeneraziotik sortua— hornidura lizitzatzeko, Aldundiaren eta foru erakundeen atxikimendurekin (Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea, Gazteriaren Foru Erakundea, Arabako Foru Suhiltzaileak, Araba Garapen Agentzia, Indesa, Santa Maria Katedrala eta Artium fundazioak eta Arabako Ur Partzuergoa).

Guztira 29 toki erakunde ere atxiki zaizkio esparru akordio horri, eta horien artean nabarmentzekoak dira Gasteizko Udala, AMVISA udal sozietatea eta Aiarako, Arabako Errioxako eta Añanako kuadrillak.

Honako udal hauek ere batu dira: Amurrio, Arratzua-Ubarrundia, Aiara, Mañueta, Bernedo, Burgelu, Eltziego, Iruña Oka, Iruraiz-Gauna, Kripan, Bastida, Lapuebla de Labarca, Audio, Legutio, Leza, Moreda Araba, Okondo, Samaniego, Eskuernaga eta Iekora; eta Arbulu, Betolatza, Dura, Luku, Mendibil, Urbina, Villanañe eta Zurbaoko administrazio batzarrak.

Arabako Batzar Nagusiek ere hartuko dute parte kontratazioaren lizitazioaren aurreko esparru akordio horretan. Lizitazio kontratua 28 bat milioi eurokoa izango da eta formalizatzen denetik 2023ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean.

Bestalde, Gobernu Kontseiluak beste esparru akordio baten deialdia ere onetsi du, berokuntzako C gasolioaren hornitzaile bat hautatzeko, Arabako Foru Aldundirako, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunderako, INDESA 2010 SLrako, Amurrio, Armiñón, Iruraiz-Gauna, Agurain eta Donemiliagako udaletarako eta Betolatza, Jungitu eta Mendibilgo administrazio batzarretarako. Kontratuaren gutxi gorabeherako zenbatekoa 2,5 milioi euro da, gehi BEZa.

Arabako Foru Aldundiak jarri zuen abian Foru Kontratazioen Zentrala joan den legegintzaldian, hornigai eta zerbitzuen prezio hobekia lortzeko, baliabide publikoak modu eraginkorragoan kudeatzeko eta administrazio prozesuak sinplifikatzeko. Zentrala 2017an hasi zen lanean, elektrizitatearen eta gas naturalaren kontratuak lizitatu, zeinak 2018ko urtarrilaren 1ean sartu baitziren indarrean.

Onetsi da aseguru polizak kontratatzea, Arabako kontzejuek dituzten zenbait arrisku estaltzeko

Kontratu horren lizitazioaren aurrekontua 450.000 euro da

Foru Gobernu Kontseiluak gaur onetsi du Arabako kontzejuen zenbait arrisku estaltzeko aseguru polizak kontratatzeko espedientea, 450.000 euroko lizitazio aurrekontuarekin.

Arabako kontzejuen izaera berezia ikusita, eta 2001ean sortu zenez geroztik, Arabako Foru Aldundia erakunde horiek aseguratzeko sistema bati eusten ari zaio, beste edozein administrazio publikok berarentzat izan lezakeenaren antzekoa. Horrela, alde batetik, estaldura egokirik ezak herritarrei eta administrazioei eragin diezazkiekeen kalteak prebenitzen dira, eta, bestetik, kontratazio zentralizatua egiten da, kontzeju bakoitzak bere aldetik lor lezakeena baino prezio hobea lortzea errazten duena.

Sistemak, sortu zenetik, lau poliza ditu (istripu korporatiboak, auzolanetako parte hartzaileen istripuak, erantzukizun zibila eta eraikinen estaldura), eta kontzejuek eta Aldundiak berak finantzatzen dute, ehuneko berrogeita hamarrean, Aldundia izanik kontratatzeaz arduratzen dena.

Horregatik guztiagatik, kontzejuek estaldura egokiak izan behar dituztenez, beste lizitazio baterako deialdia egin behar da.

Esan bezala, lau poliza dira, bi sortatan multzokatuta: I. sortan korporazioko kideen eta fede emaileen istripu polizak, eta auzolanetan parte hartzen dutenenak biltzen dira; II. sortan, berriz, administrazio batzarrek beren jardueran izan dezaketen erantzukizun zibila estaltzen da, eta, bestetik, kontzejuen jabetzako eraikinak. Eraikin horiek erabilera edo zerbitzu publikoari atxikita egon behar dute, Udal Zerga eta Katastro Zerbitzuak emandako datuen arabera, hori guztia baldintza teknikoen agirietan jasotakoarekin bat etorritz.

Bi kasuetan, kontratuen iraupena bi urtekoa izango da 2023ko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra arte, eta ezin izango dira luzatu.

Foru Aldundiak onespena eman dio garbiguneetatik datozen hondakin ez-arriskutsuak kudeatzeko eta biltzeko zerbitzua kontratatzeari

Zerbitzua garatzeko aurreikusitako aurrekontu zuzkidura 302.500 eurokoa da, BEZa barne

Foru Gobernu Kontseiluak onespena eman dio "Arabako Foru Aldundiak kudeatzen dituen garbiguneetatik datozen hondakin ez-arriskutsuak kudeatzeko eta garraiatzeko zerbitzua" emateko kontratazioari.

Zerbitzua garatzeko aurreikusitako aurrekontu zuzkidura 302.500 eurokoa da, BEZa barne. Gauzatzeko epea urtebetekoa da, eta beste lau urtez luza daiteke.

Foru erakundeak Amurrion, Oionen, Dulantzin, Tuestan, Langraiz Okan eta Santikurutze Kanpezun kokatutako sei instalaziok osatzen duten garbiguneen foru sarea kudeatzen du. Instalazio horietan, herritarrek izaera desberdineko hondakinak uzten dituzte, eta kopuruagatik nabarmentzen dira, hondakin ez-arriskutsuen artean, etxeetan etxeko konponketa lan txikiek sortutako hondakin geldoak eta tamaina handiko hondakinak.

Foru garbiguneen sareari buruzko informazio gehiago:<https://web.araba.eus/es/medio-ambiente/residuos/garbigune>

Onetsi da dirulaguntzen deialdi publiko berria, tokiko edo eskualdeko komunikabideek euskaraz jardun dezaten

2022ko ekitaldirako foru zuzkidura 203.070 euro da

Foru Gobernu Kontseiluak tokiko edo eskualdeko euskarazko komunikabideentzako dirulaguntzen deialdi publikoa onetsi du gaur, 2022ko ekitaldirako.

Deialdi horren laguntzen zuzkidura 203.070 euro da eta helburua da euskaraz argitaratzen diren komunikabideak landu, ekoitzi eta zabaltzeko lanetan, eskatzaileak egindako gastuak finantzatzen laguntzea, betiere deialdi horretan jasota dauden betekizunak betetzen badira.

Tokiko edo eskualdeko komunikabidetzat hartuko dira udalerriko edo eskualdeko informazioa euskara hutsez zabaltzen duten egunkariak edo aldizkako argitalpenak, dela paperezko euskarrian edo argitalpen elektronikoarekin batera.

Laguntzak jaso ahal izango dituzte erakundearen egoitza eta zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan edo Trebiñuko enklabean duten pertsona juridikoek.

Bestalde, deialdi horretako laguntzak komunikabide onuradunek 2022ko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra arte garatzen duten jarduera laguntzeko erabiliko dira.

Eskaerak aurkezteko epea deialdi hori Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean (ALHAO) argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da; amaitu, berriz, 20 egun balioudun igaro ondoren deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Foru Aldundiak Olabide ikastolako sarbideak hobetzea lizitatu du

Helburu du ikasle asko ibiltzen den zona bateko bide segurtasuna indartzea

Inbertsioa 410.000 eurokoa da, eta Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak partekatuko dute

Foru Gobernu Kontseiluak gaur lizitatu ditu Olabide ikastolara eta bere ingurura errepidez doazenentzako, oinezkoentzako eta txirrindularientzako sarbideak hobetzeko obrak, 410.978 euroko zenbatekoaz eta bi hilabete eta erdiko epeaz. Inbertsio hori Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak partekatuko dute, bi erakundeek sinatutako hitzarmenaren arabera.

Proiektuan galtzada handitzea eta espaloi eta bizikleta errei berriak eraikitzea sartzen da, eta obrak urte honen amaieran hasia aurreikusten da.

A-4132 errepidearen ia 300 metroko tartean esku hartuko da, eta galtzada sei metrora arte handituko da, alboetan metro erdiko bazterbideak jarrita, eta gorago jarriko diren bi espaloi eraikiko dira, egunero ikastetxera joaten diren ehunka ikasle, irakasle eta gurasori segurtasun handiagoa emateko

Iparraldeko espaloiak 6,5 metroko zabalera izango du, 2,5 metroko bidegorria barne; hegoaldeko espaloiak, berriz, zabalera aldakorra izango du ikastolaren instalazioen itxiturara arte: 9,00 metro, ikastolaren sarreraraino (bidegorria ere hor sartzen da), eta 14,00 metro errepidearen mugaren eta itxituraren artean. Antzinako autobus aparkalekua oinezkoentzako espazio izan dadin prestatuko da.

Konponbide horrekin, Lasarteko atletik datorren bidegorriari jarraipena emango zaio, zeina gaur egun ikastolaren ondoko biribilgunean zuzenean amaitzen baita. Horretarako, A-4132 errepidearen iparraldeko ertzetik ekialderantz biratuko den espaloi bat sortuko da, ikastetxearen sarrerarekin bat egiten duen tokiraino. Puntu horretan, oinezkoentzako eta txirrindularientzako pasabide bat sortuko da, behar bezala seinaleztatuta, bidegurutzean ikuspena izateko eta ibilgailuen abiadura moteltzeko

Proiektua osatzeko, argiteria publikoa berrituko da, efizientzia energetikoaren eta errepidearen drainatze sistemaren irizpideak kontuan hartuta, eta seinale horizontal eta bertikal berriak jarriko dira. Era berean, ezpondak eta obrek okupatzen dituzten zonak ingurumen aldetik lehengoratzeko lanak egingo dira.

Proiektuaren aurrekontua 410.977 eurokoa da: Gasteizko Udalak 207.163 euro jarriko ditu, eta Arabako Aldundiak 203.163 euro. Foru erakundea arduratuko da lizitazio eta adjudikazio prozesua kudeatzeaz, obren zuzendaritzaz eta desjabetzeak izapidetzeaz.

Foru Aldundiak onetsi du udalei eta kuadrillei berdintasunerako laguntzak ematea

Dirulaguntzaren zenbateko osoa 185.744,13 euro da, 46 proiektu finantzatzeko

. Gobernu Kontseiluak udalei eta kuadrillei dirulaguntzak ematea onetsi du, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko jarduerak gara ditzaten. Dirulaguntzaren zenbateko osoa 185.744,13 euro da, 46 proiektu finantzatzeko.

Balorazioan, lehentasuna emango zaie berdintasuna lortzeko eragin handiagoa duten jarduera eta programei. Hauek dira nabarmenenak: LAIA, Arabako Emakumeen Jabekuntza Eskola, indarkeria matxistei buruzko prebentzio eta sentsibilizazio programaren esparruko jarduerak, sailekin koordinatzea genero ikuspegia txertatzeko programa sektorialetan eta berdintasun egituren iraunkortasuna kuadrillean.

Foru Aldundiak 124.000 euro bideratuko ditu Arabako zortzi udalerritako oinarrizko gizarte zerbitzuak finantzatzera

Foru Gobernu Kontseiluak gaur goizean onetsi du 124.000 euroekin finantzatzea lurraldeko zortzi udalerrirekin sinatutako hitzarmenak, aurten oinarrizko gizarte zerbitzuak emateko. Zehazki, Gaubea, Añana, Lantaron, Armiñon, Berantevilla, Zambrana, Erriberabeitia eta Erriberagoitiko udalekin ditu hitzarmenak.

Hitzarmen horiez gain, joan den astean Foru Gobernu Kontseiluak beste batzuk ere onetsi zituen, zerbitzu horiek finantzatzeko lurraldeko beste bost udalerriri eta beste hainbeste kuadrillari. Oinarrizko gizarte zerbitzuak finantzatzeko aurten Arabako landa eremuko erakunde guztiei bideratutako guztizko zenbatekoa 1,4 milioi eurotik gorakoa da.

Arabako Foru Aldundiak, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen (GOFE) bitartez, laguntza ematen die lurraldeko udalerriri txikiei; hain zuzen, 20.000 biztanletik beherako Arabako udalen oinarrizko gizarte zerbitzuetako giza baliabideak finantzatzen ditu, eta koordinazio teknikoa eta prestakuntza eskaintzen dizkie, nahiz eta udalaren eskumenekoak izan.

Oinarrizko gizarte zerbitzuek funtsezko eginkizun bat dute esleituta. Balio anitzeko arreta unitateak dira. Udaletako gizarte zerbitzuetan daude sartuta, eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarako lehen sarbidea dira herritarrentzat. Arreta ematen dute autonomiari, gizarteratzeari eta larrialdi egoerei edo gizarteko babesgabetasun egoerei loturiko beharretan, eta, batez ere, arrisku egoeren prebentzioan.

Arabako Foru Aldundiak bigarren lokal bat eskuratu du Hazaldi zentroa handitzeko, 0 eta 12 urte bitarteko haurrentzat

Foru Gobernu Kontseiluak gaur goizean onespena eman dio lonja bat eskuratzeari haurrentzako harrera eta larrialdietarako Hazaldi Zentroa berritu eta handitzeko. Eskuratzeko horrek eta joan den apirilean onetsitako aldameneko beste lokal baten alokairuak aukera emango dute zentroa handitzeko. Eskuratzearen prezioa 76.000 eurokoa da.

Egoitza horretan, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak (GOFE) babesgabetasun egoera baten ondorioz premiazko esku hartzea behar duten 0-12 urteko haurrak artatzen ditu, hainbat arrazoiengatik familiarekin bizi ezin direlako. Gainera, amatasun harrerako zerbitzu espezifikoak eskaintzen du, hiru urtera arteko haurtxoentzat.

Zentroak 22 plaza ditu, eta iaz 41 adingabe hartu zituen (20 neska eta 21 mutil). 1986an inauguratu zenetik igaro den denboragatik, eraberritzeko eta handitzeko obrak egin behar dira.

Eskuratutako lokala Hazaldiko beheko solairuaren mugakidea da. Obrei esker, jantokia handitu ahal izango da, gaur egun dagoena txikia baita. Era berean, orain arte korridoreko zona batean uzten ziren gauzak (hala nola haurtxoentzako orgak, paseatzeko autoak eta bizikletak) garbitzeko eta biltegitratzeko biltegitratzeko espazio gehiago jarriko da. Handitze horri esker, garbitasuneko eta sukaldeko langileentzako komunak eta aldagelak egongo dira, eta galdarei kokapen berria emango zaie.

Handitze hori osatzeko, ikastetxea erabat berrituko da, bainugelak, zoruak, hormak, sabaiak, erradiadoreak, atek eta leihoak egokituko.

Errentamendu kontratua Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan dago, eta Europar Batasunaren Next Generation EU funtsekin finantzatuko da.